

0. zenbakia
1999ko ekaina
225 pta

U R I B E K O S T A K O A L D I Z K A R I A

UK

Iosune Uriarte

Metro Bilbaoko
bezeroaren arretarako
eta informaziorako
burua da. Beragaz
berbetan egon gara.

**Aldizkari
berria!**
Egin zaitez
harpidedun



lehengo *bizarra lepoan* eraberriturik dagoeneko kalean



Getxo

zuk nahi duzun herria.



Euskaldunok Getxon ere badugu Euskeraz bizi izateko eskubiderik. Udalak aintzindari izan behar du honetan, alkateak eta zinegotziek eredu. Hurrengo lau urteotan Getxon euskeraren erabilera suspertuko dugu.




IÑAKI ZARRAOA
Getxoko Alkategaia



URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

3



irudia

Kanpomartxoa

Aspaldian Bizkaiko hainbat tokitan (Arratian, Txorierrin...) martxoan edo inauteri aurreko domekan familiak eta herriko taldeak landa batera joaten ziren, bertan sua egin eta jai giroan elkarrekin bazkaltzen zuten; kanpomartxoa zen. Obitura hori jaso, moldatu eta euskararen jai bilakatu dute Berbots-Erandion Euskaraz elkartekok. Aurten seigarren edizioa ospatu dute.■



ALDIZKARI HAU
PAPER EKOLOGIKOZ
EGINA DAGO

ARGITARATZAILEA: Uribe Kostako Aldizkaria **HELBIBIDEA:** Ameztu 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO / e-mail: Aldizkaria@euskalnet.net / Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru **ERREDAKZIOA:** Esti Ezkerra, Zaloa Mendez, Verónica Muñoz, Andoni Lloa, Konrado Mugerza **ARGAZKIAK:** Mikel Martinez **DISEINUA:** JOTA•GRAFIK, Jokin Aspuru **TESTUEN ORRAZKETA:** Joseba Bultron **INFOGRAFIA:** Olatz Martinez **MARRAZKILARIA:** Gorka Vázquez **ADMINISTRAZIOA:** Konrado Mugerza **PUBLIZITATEA:** Amaia Bilbao **KOLABORATZAILEAK:** Bittor Egurrola, Jokin de Pedro, José Ignacio Lobo, Josu Zubiaur, Sabin Ugarte, Itsaso Arana, Aitor Elizegi, Algortako Bertsolari Eskola **ALE KOPURUA:** 5.000
INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

editoriala

Agur Bizarra Lepoan, agur UK

Esku artean duzun aldizkari berri hau, *Bizarra Lepoan* aldizkariaren jarraipena duzu, irakurle, hiru urtez Getxo eta inguruko herrietan hilabetero banatu duguna. Nonbait ez gara konformistak eta argitalpen honek hazi behar zuela erabaki genuen. Horrela, ba, Uribe Kosta osora zabaldu dugu, hau da, Erandiotik Lemoizeraingo euskaldun guztientzako aldizkariaren aldeko apostua egin dugu. Horregatik ere izena aldatu beharrean ikusi dugu gure burua *Bizarra Lepoan* getxotarregia zen eta. *UK*, beste barik, horixe egin dugun aukera. Baina *Bizarra Lepoan*-ek jarraitzen du, hau da, euskara elkarreak lanean segitzen du.


Honezker, askok aldizkaria ezagutzen dugu, baina lehenengoz aldizkaria jasotzen duzun irakurleoi esan behar dizuegu, aldizkari independentea dela *UK* (inongo alderdi edo erakunderekiko morrontzarik gabekoa); kulturaz eta gure inguruaz kezka agertuko dituen; zure proposamen eta iritzietara orrialdeak zabalik dituen... Aldizkari atsegin, irakurtzeko erraza (ez horregatik hutsala), itxura onekoa, modernoa egiten saiatuko gara. Asmoa, behintzat, horixe dugu.

Orain arte Bizarra Lepoan Euskara Elkartea izan da aldizkariaren argitaratzailea eta honetan ere aldaketak daude. Egokiago iruditu zaigu *UK* aldizkaria argitaratzea eginkizun bakarra izango duen elkartea osatzea. Aldizkaria argitaratzea lan eta buruhauste handia da eta egitura independente batek funtzionamendua errazten du. Hala ere, aldizkari honek Uribe Kostako euskara elkarte guztiekin hartu-eman estuak izaten jarraituko du. Adibidez, Bizarra Lepoanekin hitzarmena sinatua dugu eta bazkideek doan jasoko dute aldizkaria.

Kontua da orain arte aldizkaria doan banatu dugula. Urte batzuk pasatu dira eta irakurleak bere aldetik zeozer jartzeko garaia badelakoan gaude. Horrek gure proiektua sendotuko du. Irakurleari harpidetza betetzea eskatzen zaio, eta dagoeneko bete duenari, bere lagun euskaldun artean harpidedun gehiago egin ditzala.

Agur esan aurretik gauza bat. Irakurlearen jakinmina da aldizkari honen izateko arrazoiak, eta horretan asmatzeko behar-beharrezkoak ditugu zuen gutunak, zuen proposamenak, zuen iritzia... Azken finean, zuen partaidetza.

Beste barik, jaso ezazue agur bero bat *UK* egiten dugunon partetik.■



aldizkari berri honi
ongi etorri, zorionak!

Barrukoa Taberna

Telletxe 5



ALGORTA

**SANTANA
KIOSKOA**

Prentsa eta aldizkariak

Santana kalea, Amaiarekin bat
AREETA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA EZARKETAK



T: 430 53 46

HIRURAK

Sarrikobaso 15 48990 ALGORTA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

*Errotalde
ileapaindegia*

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A
ANDRA MARI GETXO

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

e-mail elkarrizketa

Londresetik Izaskun Salsidua

Londres

Helbidea: salsidua@hotmail.com

Jendea Interesgarria Bilatu Internet e-mail Software

• Izaskun Salsidua Onandia
• 33 urte
• Euskal Filologoa
• Londresen bizi da

"Euskal Etxe bat sortu nahian gabiltza Londresen"

Zertan zabilta Londresen?
Irakaskuntzan ari naiz, helduei euskarazko klaseak ematen eta bertako eskoletan ordezkapenak egiten. Orain dela bi urte etorri nintzen, baina lehenago egona nintzen.

Luzaroan bertan geratzeko asmorik?
Ez dakit, hori bizitzak berak esango dit.

Zergatik joan zinen Londresera eta ez beste norabait?
Ez nago erabat ziur zergatik nagoen hiri honetan: batetik, baliteke txikitatik Londres oso gertutik bizi izana, amaren amabitxia bertan bizi izan zelako urteetan eta urteetan eta bisitan zetozen bakoitzean hainbat gauza kontatzen zigun hiri honi buruz; bestetik, sistema honek une honetan nazio arteko harremanetan eskatzen duen ingelesaren premia eta, azkenik, nire bidaiatzeko eta beste kulturak ezagutzeko nahiagatik.

Gatxa izaten da atzerriko girora egokitzea...
Gatxa izaten da, bai, atzerriko girora moldatzea, gehienbat hiri handi batean norbere txokotxo topatzea, zeren nahiz eta euskaldun asko ezagutu, eta hori oso lagungarria da, azken finean norberaren baitan baitago bizitzan aurrera egitea.

Kanpoan bizi izanda, zeintzuk dira faltan igartzen dituzun gauzak?
Janaria, batez ere.

Entzun dut Londresko Hackney auzoan euskaldun asko bizi dela...
Ni orain ez naiz Hackney-n bizi, alboko auzo batean bizi naiz; baina ondo ezagutzen dut Hackney eta, zer esango dizut ba, oso gustukoa dut nik auzo hau, ez da auzo aberatsa baina kultura anitz dago eta jende gazte asko ere bai.

Londresetik Euskal Elkartearen zabilta...
Bai, Euskal Elkarte edo Euskal Etxe bat sortu nahian gabiltza. Izenak berak dioen bezala euskaldunok elkartzeko txoko bat, batez ere, euskal kultura sustatzeko eta hona datozen euskaldunei laguntza emateko. Korrika 11 ere ospatu genuen.

Euskara irakasten zabilta; nortzuk dira Londresen euskara ikastera hurbiltzen direnak?
Denetarik: suediarak, irlandarrak, ingelesak, mungiarak, donostiarak... Une honetan bederatzi lagun gara baina datorren urtean gehiago izatea espero dugu.

Euskal Elkarteak eskurri bat ere argitaratzen duzue.
Bai, euskaraz eta ingelesez Berripapera argitaratzen dugu jendeari azken mugimenduak jakinarazteko. Helburu informatzailea dauka eta dauden 150 bazkidek jasotzen dute urtean 12 libera ordainduz. Berripapera edo Newsletter hau jaso nahi duenak urteko 12 libera ordaindu beharra dauka baina gutxi barru aurrezki kutxa kontu korronte bat zabaldu nahi dugu Euskal Herrian bizi diren bazkideentzat. Bitartean, interesatua dagoenak, honako helbidera idatz dezake:

Euskal Elkarte - Basque Society
Post Box 24656
London E2 7WD

Web orrialdea ere badakazue, ezta?
Bai, bertan Londresera etorri berria denak informazio baliagarria jaso dezake. Helbidea: <http://www.surrey.ac.uk/~ecp2fm/zintzilik.html>

TESTUAL JOKIN ASPURU

José Ignacio Logo

ikimilikiliklik



José Antonio Esteban "Cotelo"

Ez dago Plentzian elkarerik Cotelo bertako partaide ez denik: Txirlen Kofradia, futbol taldea, pilota... Egunero egoten da bere geltoki ondo-ko tabernan lanean, eta gainera, beste hamaika gauza egiteko astia ere hartzen du. Adibidez, marinan berarekin zerbitzu militarra egin zutene-kin urtero bazkariak antolatzen ditu...

Amen

JOSEBA SANTXO URIARTE
Doinua: Juana Bixenta Olabe

I
Heriotzaren iragarlea:
hogeita hamalagarren alea.
Aldizkari bat joana zaigu,
bizartzaleok gara testigu;
goianbegoka
ez hasi, negar malkoz itota,
berpizkundera hortxe dago-ta.

II
Bagatoz berriz orri artera
jaiotza berri bat iragartzera.
Izena ere badauja eUKi;
ez beza inork larregi UKi;
ez inkomoda,
haziko da eta egongo da
lantzantzeko hainbeste denbora.

III
Ezkontza ere laster batean
izango da gure eskualdean;
zortzi udal, eztei itzela!
aldizkaria*eratzun dela;
ezkon bizitza
ez da izango oso murrizta,
euskara bada bizi baldintza.

IV
Liturgiaren erretolikan
erortzen garenez hirutik bitan,
tonu horretan amaitu nahi dut
ur bedeinkatuz zipristinduz UK;
intentzioa
ona denez, UKen gestioa
izango da konfirmazioa.

EHEkoel

Sarritan topatzen ditut
erdarazko testuak ezabaturik
dituzten kartel mordoak,
batzuk EHEK sinatuak,
beste batzuk sinadura barik.
Kalean ezartzen diren
karteletan, behintzat,
erakundeek euskarari
lehenasuna ematen diotela
ikusirik, (kaleko karteletan
lehenengo euskarazko
testuak ipiniz eta aspian
itzulpenik badu, erdarazkoa),
zertara dator erdarazkoak
modu zatarrean ezabatze
hori? Zer zentzu dauka,
"hondartza" jartzen duen
kartelean azpiko "playa"
ezabatzea? Edo eta "Kirol
Portua" azpiko "Puerto
Deportivo" hori? Nik
dakidala, gure inguru
honetan bizi diren gehienek
ez dakite euskaraz.
Beharbabada, ezabaten
diren izen horiek ezabatuko

ez balira, agian, apur bat ere
ikasiko lukete. Ondo dago
erdara hutsean dauden
gauzak euskaraz ere emateko
eskatzea, zalantza barik,
baina ez gaitezen hainitsuak
izan. Zer lortzen dugu
horrelako ekintzekin? Nire
ustez ezer gutxi, euskararen
alde egitea baino
euskararekiko aurkako
jarrerak pizten dira horrela.
Euskaldun garenok,
euskarazko prentsa irakurritz,
irritiak entzunez, lantzean
behin bada ere, euskarazko
libururen bat erosi eta
irakurritz, lagun
euskaldunekin euskaraz
berba eginez... horrela egiten
da Euskal Herrian euskaraz.
Bestea, pintadaren egilearen
kontzientziaren lasaigarri
izan daiteke, baina euskarari
ez dio inongo mesederik
egiten.

MIREN ZARANDONA

Ametzak amets Ameztin?

Hauteskundeak gainean
ditugu eta herriitik zehar
paseatzeko ohitura duena
honekero konturatuko zen
ziztu bizian hamaika obra,
plaza, bide asfaltatze...
egiten ari direla
hilabeteotan. Apostu egingo
nuke ekaina baino lehenago
gehienak amaituko
dituztela. Baina, tira, hori ez
da gutun honen gaia.
Kontua da orain Ameztin
kalean espaloiak zabaldu eta
zuhaitzak landatu dituztela.
Kaleari izena ematen diona,
aspaldian bertan zegoen
ameztia da. Beharbada,
erromantiko hutsa naiz,
baina ez al litzateke
egokiagoa ametzak
landatzea? Ez al zaio
Udaleko inori bururatu?
Arrazoi teknikoren bat al
dago?

ANDONI GARCIA

San Jorge eta herensugea



LAVOMATIQUE
IKUZTEGIA - LEHORGARBIKETA
GARBITEGIA - EDREDOIAK
T: 430.13.93
Iturribide 9
48990 ALGORTA - GETXO

EREAGA
Bidaiak
Autobusak
T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO

GAVRKO
GIZONENTZAKO
MODA
T: 4607084

Maria Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA
HARTU TXANDA

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak
nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!
Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

Zer aldatuko zenuke zure herrian?



Ba horrela, boteprontoan, ez dakit.
Pentsatzen dut kale gehiago jarriko
nituzke. (Algorta).



Ba pentsatu beharko nuke. Gazteentzako
zeozer. Gaztetxe bat ondo legoke.
Bestelakoan herria ondo dago, bueno apur
bat hilda.
Gotzon (Plentzia)



Aldatu? Ez nuke ezer aldatuko, oso ondo
bizi naiz hemen.
Nicomédes (Erandio)



Hango parkeko kolunpioak
apurtuta daude eta konpondu
behar dira. (Plentzia)



Piska bat aldatuko nuke...
etxe batzuk apurtuta
daudenean... Ere jolas
gehiago erosi.
Keltze (Plentzia)



Aldatu? Ba hemen beti
obratan dabilta.
Andamioak hemen,
lurra zulatu han.
Kaletik ibiltzeko nahiko
txarto egoten da. Kepa
(Algorta)



Tabernen ordute-
gia, adibidez,
luzatuko nuke.
Kale gehiago
oinetakoentzat
bakarrik. Ah!
Kotxea daukat eta
hemen ez dago
aparkatzeko modu-
rik. Aparkaleku
gehiago behar da.
Zer deritzozu?
Gorka (Algorta)



Etxeak aldatuko
nituzke; oso itsusiak
dira. (Erandio)

VILLABOTAS
JATETXEA
Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina
T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

MOROTXO
Kantxa
Kizol moda
TORRENE 13
48990 ALGORTA
TF. 4911882

ALZANDOS
RIKI
UMEAK
GAZTEAK
Kale Nagusia 30 - T: 4645543
AREETA

Euskararen zenbakiak

Zenbat gara? Horixe gure buruari egin diogun galdera. Eusko Jaur-laritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzara jo dugu eta hementxe duzue egin berri den ikerketaren emaitza. Laburpen modura, berri pozgarri bat, euskaldunen portzentaia gora egin du Uribe Kostan azken 15 urteotan.

TESTUA: JON AIZPURUA / ARGAZKIAK: MIKEL M. / INFOGRAFIA: OLATZ MARTINEZ

Uribe Kosta hamar udal-erri osatzen dute: Barrika, Berango, Erandio, Getxo, Gorniz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopelana eta Urduliz dira. 1996ko erroldan jasotako datuen arabera, 157.473 lagun bizi dira bertan. Eskualdeko biztanleen erdia baino zertxobait gehiago (%52,2) Getxon bizi da (82.196). Horrez gain, 10.000 biztanletik gorako beste bi udal-erri daude: Erandio (23.613 bizilagun) eta Leioa (26.256 bizilagun).

1981 eta 1996 bitartean, eskualdea osatzen duten udal-errietan biztanle kopuruak gora egin du, Erandion izan ezik (udal-erri honek biztanleen %6,0 galdu du). Lemoizen kasuan, 1996an 1981ean baino biztanle gutxiago baditu ere, esan behar da azken bost urteotan biztanleria %5,9 hazi dela.

GAITASUNA

1996ko erroldan jasotako datuen arabera, eta 5 urte edo gehiago dituzten biztanleak kontuan hartuta, Uribe Kostako euskaldunak %22,1 dira, elebidun hartzailak %21,5 eta erdaldun elebakarrak %56,2. Hala ere, udal-errien

artean alde handiak daude. Izan ere, Getxon (%19,2) eta Erandion (%18,7) euskaldunak bost lagunetik bat baino gutxiago diren bitartean, Urdulizen (%47,6) eta Lemoizen (%68,7) nagusi dira.

Adinari dagokionez, erdaldun elebakarrak nagusi dira 25 urtetik gorako biztanleen artean. Baina gazteen artean portzentaiek behera egiten dute nabarmen, elebidun hartzailen eta, batez ere, euskaldunen mesedetan.


Izan ere, euskaldunen portzentaia handienak 25 urtetik beherako gazteen artean daude. Zaharren artean, lau lagunetik bat euskalduna da, baina portzentaia behera egiten du adinarekin batera. Horrela, 45-49 urte bitarteko artean euskaldunak %10,7 dira. Aitzitik, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean, euskaldunak herena baino gehiago dira (%36,0) eta 15 urtetik beherako artean %44,7 gora. Aldi berean, kontuan hartu behar da gazteen artean erdaldun elebakarrak laurdena baino gutxiago direla. Gainera, 15 urtetik beherako artean dagoen euskaldunen nagusitasuna udal-erri guztietan ikus daiteke.

Uribe Kostako euskaldunen portzentaia gora egin du eten gabe azken 15 urteotan. 1981 euskaldunak %13,2 ziren eta 1996an %22,1. Hazkunde hau udal-erri guztietan gertatu da. Hazkunde hori, gainera, zertxobait handiagoa izan da udal-erri erdaldunenetan: Erandion 8 puntukoa, Getxon 9 puntukoa eta Leioan 11 puntukoa.

Adinari dagokionez, 1981 eta 1996 bitartean euskaldunen portzentaia gora egin du 40 urtetik beherako artean. Zaharragoen artean, ordea, euskaldunak 1981ean baino zertxobait gutxiago dira 1996an. Hala ere, azpimarratu behar da hazkunderik handiena 20 urtetik beherako gazteek ezagutu dutela, batez ere 15 urte baino gutxiago dutenak (10 eta 14 urte bitartean euskaldunen hazkundera 35 puntutakoa izan da).

AMA-HIZKUNTZA

Uribe Kostan, erabat nagusi dira ama-hizkuntza gaztelania dutenak (%84,3). Ama-hizkuntza euskara dutenak, berriaz, %9,2 dira eta euskara zein gaztelania dituztenak %4,9. Azkenik, ama-hizkuntza gaztelania ez den beste



*Datuek: Eusko Jaur-laritzak
1996ko errolda

	Biztanleak	Euskaldunak	Elebidun hartzailak	Erdaldunak
Erandio	23.613	%18,78	%18,55	%62,67
Leioa	26.256	%21,3	%22,32	%56,37
Getxo	82.196	%19,29	%22,77	%57,94
Berango	4.645	%33,12	%20,11	%46,77
Urduliz	2.787	%47,68	%15,82	%36,5
Sopela	9.460	%33,03	%21,19	%45,78
Barrika	1.047	%42,89	%14,93	%42,19
Plentzia	3.117	%28,83	%22,37	%48,79
Gorniz	3.523	%32,71	%19,06	%48,23
Lemoiz	829	%68,74	%11,21	%20,05

1996ko erroldan
jasotako datuen
arabera, eta bost urte
edo gehiago dituzten
biztanleak kontuan
hartuta, Uribe
Kostako euskaldunak
%22,1 dira

Uribe Kostako
euskaldun guztien
erdia (%51,2)
euskaldun berria da



Udalerrien artean alde handiak daude. Izan ere, Erandion (%18,7) eta Getxon (%19,2) euskaldunak bost lagunetik bat baino gutxiago diren bitartean, Urdulizen (%47,6) eta Lemoizen (%68,7) nagusi dira

Uribe Kostako euskaldunen portzentaiak gora egin du eten gabe azken hamabost urteotan. 1981an euskaldunak %13,2 ziren eta 1996an %22,1.

erdara bat dutenak %1,3 dira. Udalerriak aztertuz gero, aipaturako nagusitasun hori, neurri batean edo bestean, guztietan nabari da, Lemoizen izan ezik (bertako biztanleen %62,1ek euskara dute ama-hizkuntza).

Gaztelaniaren nagusitasuna erabatekoa da adin-talde guztietan (%69tik gora). Portzentaiak, gainera, gora egiten du adinak behera egin ahala. Baina, adin-talderik gazteenetan joera aldaketa txikia nabari da eta ama-hizkuntza euskara duten portzentaiak gora egiten du zertxobait.

BILAKAERA 1986-1996
Azken hamar urteotako ezaugarri nabarmenena euskaldun berrien hazkunde garrantzitsuarena izan da. Izan ere, Uribe Kostako euskaldun berriak 1996an, hamar urte lehenago baino ia hiru aldiz gehiago dira. Erdaldun zaharrek ere beherakada garrantzitsua izan dute, nahiz eta oraindik nagusi izaten jarraitu.

Udalerrietan izandako joerak, oro har, berberak izan dira, beti ere kontuan hartuta gorabeherarik handienak udalerri erdaldunenetan gertatu direla.

Adinari dagokionez, euskaldun zaharren eta jatorrizko elebidunen bilakaera txikia izan da adin-talde guztietan, baina, batez ere, helduen eta zaharren artean. Gazteen artean, jatorrizko elebidunen portzentaiak gora egin du nabarmen azken bost urteotan.

Euskaldun berriei dagokionez, zaharren artean aldaketak oso txikiak izan diren bitartean, gainerako adin-taldeetan portzentaiak gora egin du adinak behera egin ahala. Gorakada hori, gainera, handia izan da 35 urtetik beherako artean eta, batez ere, 25 urte

baino gutxiago dituzten artean, euskaldun berrien portzentaiak hirukoiztu egin baitira.

Erdi euskaldun berriak diren eta erdi erdaldunen bilakaerak ez du gorabehera handirik izan, ezta guztiz erdaldunduena ere.

Azkenik, erdaldun zaharren portzentaiak behera egin du 40 urtetik beherako artean eta gora 40 urte baino gehiago dituzten artean. Dena den, zaharren eta helduen artean izan den igoera ez da gazteen artean izan den beherakada bezain garrantzitsua.

ETXEAN

Uribe Kostako euskaldunen %15,7k euskara erabiltzen dute etxean, %27,9k euskara eta gaztelania erabiltzen dituzte eta, azkenik, %56,4k gaztelaniaz hitz egiten dute.

Hala ere, kontuan izan behar da, gainerako aldagaiekin bezalaxe, udalerri euskaldunen eta erdaldunen arteko aldea handia dela. Izan ere, Erandioko emaitzak eskualdearen antzekoak diren bitartean (%15,6 aktibo euskaraz, %27,0 bietan eta %57,4 pasibo euskaraz), Lemoizen, adibidez, euskaldunen %59,8k euskara erabiltzen ohi dute etxean, %30,4k hizkuntza biak erabiltzen ditu eta %9,8 gaztelaniaz mintzatzen da.

Adinari dagokionez, etxean gaztelania erabiltzen dutenak nagusi dira adin-talde guztietan. Izan ere, euskaraz pasiboen portzentaia %25 baino handiagoa da adin-talde guztietan.

Bestalde, euskaraz aktiboen portzentaiak behera egiten du adinarekin batera. Horrela, 70 urtetik gorako artean, laurdena baino gehiago euskaraz aktiboa den bitartean, 40 urtetik beherako artean euskaraz aktiboen portzentaia %10 baino txikiagoa da eta

25 urtetik beherako artean %5 baino txikiagoa. Hala ere, badirudi gazteen artean joera aldaketa dagoela, euskaraz aktiboen portzentaiak gora egiten baitu zertxobait (5 eta 9 urteko artean %5,4).

Etxean euskararen erabileran eragin handia duen faktorea hizkuntz gaitasun erlatiboa da, edo, beste era batera esateko, hizkuntza batean edo bestean hitz egiteko erraztasuna, eta hori ama-hizkuntzarekin estu-estu loturik dago.

Beraz, etxean euskara gehien egiten dutenak euskaldun zaharrak dira: %40,2k euskaraz hitz egiten du etxean, %36,2 euskaraz eta gaztelaniaz mintzatzen dira eta %23,6k gaztelania erabiltzen du nagusiki.

Jatorrizko elebidunen artean, berriz, etxean nagusiki euskaraz hitz egiten dutenak %6,2 dira, hizkuntza biak erabiltzen dituztenak %58,3 eta gaztelaniaz mintzatzen direnak %35,5.

Euskaldun berriei dagokionez, euskaraz aktiboak %2,5 dira, bietan aktiboak %13,4 eta etxean nagusiki gaztelaniaz hitz egiten dutenak %84,1.

Etxe erabileran eragin itzela du familiako euskaldunen dentsitateak: gazteek ezin izango dute etxean euskaraz hitz egin, gurasoek ez badakite. Euskararen erabilera etxean, beraz, familiako euskaldun kopuruaren baitan dago. Nahikoa da etxekoren batek euskaraz ez jakitea, etxean gaztelaniaz hitz egiteko.

Dena den, kontuan izan behar da, alde handiak daude udalerri erdaldunen eta euskaldunen artean. Izan ere, udalerria zenbat eta euskaldunagoa izan, orduan eta gehiago dira etxean euskara erabiltzen dutenak. ■

GETXO haize berriak

bozkatu

Kaltea Dagianak Bizarra Lepoan



Getxo

EH

Euskal Herritarrok



Iosune Uriarte

Gazte getxotar hau, Metro Bilbaoko Bezeroaren Arreta eta Informaziorako Burua da. Bere lana, bidaiaria pozik edukitzea.

TESTUA: KONRADO MUGERZA / ARGAZKIAK: MIKEL MARTINEZ

“Gerora begira lehentasuna eduki behar dute proiektu batzuk, aireportuak eta unibertsitateak, esate baterako”

—Zer egiten du Iosunek egun normal batean?

—Ba, lan eta lan. Sekula ez da jakiten zeren, hainbeste “baloi” etortzen zaizkizu horiei erantzuten egon behar duzu. Nire kargua, berez, bezeroaren arretarako eta Informazio-burua izan arren, duela bi urtetik hona informazio kontuetan nabil gehiago, hutsune bat baitzegoen hor. Instalazioak, geltokiak oso ederrak dira, diseinu handikoak, oso estetikoak... baina ez zegoen espaziorik informaziorako eta gauza asko falta ziren.

—Eta zer egin da informazioa hobetzeko?

—Orain bi urte hasi ginen hutsune hori betetzen eta iaz txartel makinak gainean dagoen teleadierazleak jarri genituen. Lurpeko geltokietan baino ez dagoz. Aurten lur-gainekoetan ere jarriko ditugu, seinaleak argizatzeaz gain. Gero, kartelen panelak ere babestu egin ditugu, ura sartzen zitzaien eta. Eta web orria ere orain dela gutxi jarri da sarean.

—Zer harreman duzu bezeroekin?

—Hiru bulego ditugu (Areeta, San Inazio eta Parte Zaharra) eta astean hiru aldiz pasatzen naiz bakoitzetik. Bizpahiru ordutan egoten naiz bakoitzean nire jendearekin, dagoen problemak aztertzen. Eta eurak lanpetuta dagozenez bezeroekin ere egoten naiz. Baina kontaktu gehiena kexa, iradokizun eta erreklamazioen bitartez daukat, zeren eta neuk erantzuten baititut. Eskutitzez, geltokietan dagoen erreklamazio orrien bitartez, telefonoz, e-mailez, e.a.

Hilero erantzuten ditut baina laster, lan batzuk arintzen direnean, astero erantzuten saiatuko gara.

—Zure lanetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

—Ba, kexei, iradokizunei erantzuteko informazioa eskatu behar diozu enpresako jende askori, trenetako arduradunari, megafoniakoari, esplotazio-koei... eta horrek informazio zabala ematen dit enpresaz, eta hori oso aberasgarria da. Eta denbora pasatu eta norbere lanaren ondorioa hortxe ikusten denean, geltokietan, ez dela paper artean galtzen, lagundu

egiten diola bezeroari... horixe da nire satisfakziorik handienetarikoa. Kreatiboa da eta ondorioa ikusi egiten da.

—Zeintzuk dira bezeroen kexa arruntenak?

—Kexa eta iradokizun gehienak oso pertsonalak dira. Dena den, erreklamazio nagusia txarteldegia automatikoei trukea oker eman dutela izaten da; halako arazoak momentuan edo egun pare batean konpontzen ditugu, falta izan zaion dirua bezeroari zuzenki itzuliz, noski. Gainera, gure bulegora jo behar dutenez beren dirua jasotzeko, hiru bidaiako metrobono bat oparitzen diegu, eragozpenengatik.

Kopurua asko murriztu bada ere, hasieratik mantentzen den kexa bat ere bada: txarteldegia automatikoei 5.000ko biletea 2.000 pta.tik gorako txartelak erosteko bakarrik onartzen dute: hau da, joanaldia, metrobonoa eta bonoplus bidai-txartelak ezin dira 5.000koarekin erosi; bestela, txarteldegia automatikoei zerbitzuz kanpo geratuko lirake. Eta baldintza hori ez da zenbait bezeroen gustukoa.

“Norbere lanaren ondorioa geltokietan ikusten denean, bezeroari laguntzen diola... horrexek ematen du satisfakzioa”



“Udako kexa nagusia aire egokitua da. Erdiek beroa jasaten dute eta beste erdiek, aldiz, hotza. Konponbide zaila duen arazoa”

—Udan ala neguan izaten da kexa gehiago?

—Neguko kexa nagusia izaten da geltokietan ura sartzen dela, eta horregatik gertatzen diren erorketak. Udan nahiko murrizten da kexa kopurua, bidaiari gutxiago dugulako ere bai. Eta udako kexa gehienak trenen aire girotuak sortzen ditu. Baina honek soluzio zaila du, zeren kexa jartzen duten erdiek beroa jasaten dutela diote, eta beste erdiek, aldiz, hotza. Beraz...

—Zelan neurtzen da bezeroen satisfakzio maila?

—Marketing sailak egiten dituen inkestetatik ateratzen ditu. Bezeroen artean 700 pertsona aukeratu ziren, erabiltzaileen eredu egokiak, adina, sexua, lana, eta abarren aldetik. Horiei hiruhilabetero galdetzen diegu, zerbitzua erabili aurretik eta erabili ondoren: zer pentsatzen duten garbitasunaz, segurtasunaz, gure langileei buruz, informazioari

buruz... Eta hortik ateratzen ditugu gure ondorioak.

—Eta bezeroak pozik al daude?

—Ez dakit neu naizen aproposena horri erantzuteko zeren, nik erreklamazioen bitartez ikusten ditut bezeroak eta horrek ideia okerra eman diezake. Baina, kontuak atera: lanegun normal batean batezbeste 175.000 erabiltzaile ditu metroak eta hilean jasotzen diren erreklamazio, kexa eta iradokizunak 150 eta 200 bitartean izaten dira. Eta urtetik urtera kexak murriztu egin dira, gainera. Aurten, apirilera arte, iaz baino %74 kexa eta erreklamazio gutxiago daramagu, zorionez.

—Zer da jendeak gehien baloratzen duena?

—Zalantzarik gabe, garbitasuna, segurtasuna eta ordutegia.

—Ez da agertu pintadatik geltokietan?

—Bai, asko. Baina 24 ordu baino lehenagoko epean garbitu egiten ditugu. Tren batean ere honelako zerbait gertatzen bada berehala bidaltzen dugu Sopelako lantegira eta beste bat ateratzen dugu. Erretiratu egiten da. Zeren azken batean grafitiak beste grafiti bat dakar eta... Baina nahiko errespetatzen da metroa.

—Zein metro hartu zuen eredutzat Bilbokoak, baten bat hartu bazuen?

—Fosterrek kalea metrotik ahalik eta gertuen egon zedin nahi izan zuen, espazio argi eta zabalekin, hau da, metro tradizionalaren ideiatik ihes egitea: bidaiaria leku ilunera sartzen dela, pasabide askorekin, segurua ez dela... Esaten dutenez, mezaninaren ideia horretan, pasabidea zintzilik, Washingtonen metroaren antza du.

—Eta hori ez al da arrisku-tsua?

—Metroa inauguratu zenean UITP (Garraio Publikoaren Nazioarteko Batasuna) erakundearen kongresu bat egin zen Bilbon eta New Yorkeko me-

ko eskertzen dute hori. Beste alde batetik 14 sestra-biderek hasi ginen eta orain bi baino ez dira geratzen: Maidagan eta Urduliz. Eta badirudi Maidaganen metroa lurperatzeko proiektua onartuta dagoela.

—Euskaraz akats nabarmenak zeuden lehen.

—Bai, eta hori izan da gure eta gure itzultzaileen amets gaiztoa. Baina guztia aldatu dugu, planoak, euskara... Beste aldeketa batzuekin batera egiteko aprobetxatu dugu, interfonoak seinalizatu, kartelak jarri, debekatuta dagoena jarri... Denbora behar zen eta horretarako dirua ere jaso behar genuen. Martxoan amaitu dugu.

—Eta zertan zabiltzate orain?

—Epe laburrean informazioa eta seinaletika amaitu nahi dugu, kaleetan hobeto seinalizatu non dagoen metroa, informazio telebideazleak jarri lurgaineko geltokietan, ISO 9000 agiria...

—Hitz egin dezagun etorkizunaz: ezkerraldeko linea, unibertsitatea, aireportua...

—Ezkerraldeko linea 2001ean inauguratu da Urbinagaraino.

“Euskarazko akatsak izan dira gure amets gaiztoa. Guztia aldatu dugu”

troko presidentea egon zen hemen. Ba, mezanina horiek ikusi zituenean, zintzilik, estali egin beharko genituela esan zigun. Eurak une horretan arazo larriak zituzten jendeak taulekin surf egiten bezala salto egiten zuelako trenera! Norbaitek bere burua bota nahi badu, noski, gutxi egin daiteke horren kontra baina istripuak gertatzea gero eta zailagoa da.

—Segurtasuna dela-eta zer egin da?

—Lur gaineko linea guztian hesia jarri dugu eta gidariek as-

ko Basaurira 2010ean helduko da. Bigarren linea egiten denean Bilbon bi minutuko maiztasuna izango genuke. Eta dagoen planak amaitu eta gero, nire iritziz, Leioara, Unibertsitatera, Gortizera, aireportura eta Mungiaira egin beharko litzateke, ez ordena horretan baina uste dut lehen-tasan itzelak dagozela.

—Eta itsasadarrenen bi aldeak lotzerik?

—Ez dago horrelakorik pentsatuta. Newcastleko metroa oso antzekoa da, erreka eta bi linea,



gero errekaen bi aldeak ferry batek lotzen ditu eta metroak ustiatzen du ferry hori.

—Maidagani buruz zerbait esaterik baduzu?

—Nik ez eta Metro Bilbaok ere ez; gu esplotatzaileak baino ez gara eta. Guri metroa eginda eman digute eta esan digute “hemendik mugitu tren”. Eta guk tren mugitu eta geure bezeroak zaindu, horixe da gure egitekoa. Gai hori Udaren eta Diputazioaren esku dago. Teknikoki ez zen posible hori mantentzea. Gainera, Bideza-balen inguruan ere biztanlego askoz handiagoa zegoen eta,

beraz, justifikatuagoa geltoki bat. Gero, badirudi Bideza-balen metroa lurperatzeko proiektua dagoela, kiroldegia- ren inguruan beste geltoki bat egiteko eta gero Azkorri inguruan beste bat, eta Iberberrangorekin lotu. Baina, niri, unibertsitatea, aireportua... iruditzen zait lehenago izan beharko liratekeela.

—Arazo izango al dira Metro Bilbaorentzat euroa eta 2000 efektua?

—Ba, 2000 efektuari aurre hartzeko batzorde bat sortu zen eta horretan dabilta. Eta euroa dela eta, arazoak ditugu, bai,

zeren txarteldegia automatikoak baino ez ditugu; ez dugu pertsonarik txartelak saltzen. Eta problema handiena 6 hilabeteko epe hori izango da. Eta hori konpontzeko lanean gabilta. Zera pentsatu dugu: adibidez, geltoki batean lau txarteldegia badaude, hasieran bat jarri euroekin erabiltzeko eta besteak pezetekin. Eta denbora aurrera joan ahala proportzioa aldatuz joan. Baina txarteldegiek beti trukea eurtan emango lukete. Software aldaketa bat izango litzateke. Baina edozelan ere, mobida galanta. Eta hau 2001ean datorkigu. Gehitu horri 2000 efektua eta...

—Josune, metroz etortzen zara lanera?

—Bai, egunero, joan eta etorri. Eta doan daukat gainera. Beste enpresa ezagun batzuetan ere

halako abantailak izaten dituzte. Baina niri ez zait ondo iruditzen zeren pentsatzen dut badugula zortea holako lana edukitzearekin, lan finkoa, eta ordaindu beharko genukeela.

—Laster uda dator, baina gabonak ere helduko dira.

—Bai, eta gabonetako zerbitzuaz ere mobidak daude enpresa barruan.

Marketing sailekoek, normalean, zerbitzua eskaini nahi dugu, zerbitzua jendea dabilen momentuetan intentsifikatu behar delako. Baina oreka bilatu behar da langileen eskubideen eta bezeroen premien artean eta hori lortzea ez da erraza. Dena den, aurten ez dakit, Gabon Zaharrean ez dugu arriskatu nahi. 2000 efektua dela-eta gau horretan trenak gora eta behera, batek daki! ■

DATU BATZUK METROAZ

METRO BILBAOREN TITULARITATEA
%50 Eusko Jaurlaritzaz + %50 Foru Aldundia

METROAREN KOSTUA 100.000 milioi pta.

TREN BATEAN KOSTUA 1.000 milioi pta.

24 tren, CAFek eginak 27 geltoki 28 km

AUTOFINANZIAZIO MAILA

1996	%72,46
1997	%84,14
1998	%92,97

BIDAIARIAK

Urtean	1996	31.660.119 bidaiari
	1997	41.493.501 bidaiari
	1998	49.102.360 bidaiari

Batezbestekoa lanegun batean 175.000 bidaiari

Errekorra: 1998/5/15 234.413 bidaiari
(Athletic-Zaragoza partiduen eguna)



Elkarte Anonimoa

Colón de Larreategui, 25
Tf. 4230212

ZERBITZU TEKNIKOA

Tf. 4230213
48001 BILBAO

1982az geroztik
soluzio informatikoak
eskaintzen

BILBOMICRO

aldai

TAPIZTEGIA - DEKORAZIOA
ERAKUSKETA ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

KUKUMIKU

prentsa
aldizkariak
gozokiak

Juan Bautista Zabala 11

T: 491 29 22

•ALGORTA•

akabuko punte

Sarrera modun

Uribe Kostako azpieuskalkiaren gainean

TESTUA: ANDONI LLOSA

Uribe Kostan egindako azken ikerketak kontuan hartuta, esan geinke euskaldun kopurua askotan pentsaten doguna baino handiagoa dala. Kopuru horrek, oster, ez dauka gero isladarartezik kale eta plazatan, danok dakigunez (danon errua da eta) euskararen erabilera askoz urriagoa dalako. Duda barik, euskaldun barriak sortu ezeze euskeraz dakienak kalean eta nongura berba egin dagiela be helburutzat jo beharra dago hemendik aurrera. Jakina denez, alde handia dago ingurune herri ezberdin batzuen artean, Getxotik (zer esanik ez Areato edo Erromoko auzoetarik) Urdulizera dagoen diferentzia esaterako, azken herri hau askoz "euskaldunagoa" da eta. Halan eta duzti be, zoritxarrez ezin daiegu inongo kasuan esan gaurko egoerak etorkizun polita dakarrenik. Hori duztia, euskeraren gainean orokorrean berbetan gabiltzen zenean. Eta bertoko jatorriko euskeraren gainean, zer? Gauzak are gorriago dagoz.

Gaur egun nekez topatuko dogu Getxoko kaleetan bertoko euskeraz egiten deun lagunik, eta Sopelan edo Plentzian bardin antzean. Herri askotan, bertoko euskeraz egiteko kapaz direnak duztiz sakabanata dagoz eta ez deuke alkarregaz egiteko abagune onik. Beste zenbaitetan, nongura bananduta baino, batuta topatuten doguz, azken mohikanoak osatutako "ghetto" antzekoetan (Erandion Goierri aldean, Getxon Larrañazubi eta Andra Marin, Leioan Perune eta Askartza inguruan...) eta horrek be ez deuto mesede handirik egiten bertoko euskeraren jarraipen eta normaltasunari. Bitxia bada be, eskualde osoan badago makina bat euskaldun bertoko euskeraz apur bat be ulertu edo jakin ez dakiena. Gauzak horrela, nire ustez bizitzako edozein arlotan zer edo zer bultzatu gura izatekotan lehenik eta behin ezagutu beharra dago, sikan azaletik izan arren. Atal honetan, horren gainean ibiliko gara, bertoko euskeraren xehetasunak emoten eta, bide batez, lehengo sasoiotako bizimodu eta usarioen barri jakinarazten, edozein hizkuntza ikastekotan berezkoak daukazan ingurune eta baldintzak kontuan hartu behar direlako.

Euskara eta euskalkiak ikasteko orduan, 1869an Luis Lucien Bonaparte dialektologoak eginiko eremu-mugak sarritan hartu izan dira ereduizat. Izan be, lurralderik lurraldeko euskalkiak bereizteaz gainera tokian tokiko "azpieuskalkiak" be banandu ebazan Bonaparte Jaunak. Normala denez, Uribe Kostako euskera Bizkaiera eremuaren barruan kokatu behar dogu, Bizkaieraren eremua mendealdetik Bilbo inguruko Ibaizabal ondoko herri batzuetan hasi (Getxo, Leioa, Basauri, Arrigorriaga, ... esate baterako) eta Gipuzkoako mendebaldeko zenbait herritan amaitzen dala, hala nola, Eibar, Elgeta, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta ondoko hainbat herri. Halan eta duzti be, biak bizkaieraz egin arren Getxostar edo Sopelostar batek eta Arrasatear batek alde handiak ikusiko deurez bion artean euskeraz eginez gero, bai hiztegi mailan, bai fonetikan, azentuazinoan eta abarretan. Hori dala

eta, euskalki bera dala esango dogu (Bizkaiera) baina "azpieuskalki" ezberdinak.

Uribe Kostako euskera Plentziako bariatatearen barruan agertuten jaku, bertan honako herriak dagozala: Gorliz, Plentzia, Barrika, Sopela, Getxo, Berango, Urduliz eta Leioa. Gauza jakina da herri hauen alboko hainbat herritan be antzeko berbakera topa geinkela (Gatika sortaldetik, Erandion sortaldetik kasu baterako...), hain da gatxa hizkuntzen gaineko muga garbiak imintea ze! Horretaz aparte, kontrako be izan letike, hau da, bariatate beraren barruan egon arren aldaketa txikierren bat ikustea herririk herri. Horrek aldaketak, oster, ez dira lar handiak izaten eta hizlariak ez deuke ezelango trabarik alkarregaz ederto ulertuteko.

Sarreratxo moduko horren ostean, badagoz komentatu gura dotazan gauza bi, hemeko euskeraren nondik norakoak hobato ezagutu daiguzan. Batetik, bertoko euskaldunzahar jatorri edo bizimoduaren gaineko zehaztasuna; Izan be, geure lur honetan euskara eta baserri mundua alkarren ondoan ibili izan dira beti, arrantza edo itsaso munduagaz uztarturik baino. Nahiz eta kosta ondoan egon, bertoko euskaldunak "labrantzan" ibili izan dira beharreen, baserrian, sarri askotan horregaz batera fabrikatan be egon direla. Gaur egun kasu gitxitan topatuko dogu fabrika edo etxetik kanpoko bestelako lekuren batean beharreen egon ez dan euskaldunik, batez be gizonen kasuan. Hori horrela dala, baserri eta nekazaritza kontuen gaineko lexikoa eta esakera-sorta

(arbolak, basa-animalkiak, ganadua...) askoz ugariagoa izango da beste gai batzuen gainekoa baino. Testuak irakurtzeko orduan hau duztia jakitea interesgarritzat jotzen dot, galdera eta erantzunen zergatiak ezeze bertoko hizlarien bizitzeko filosofiaz eta kulturaz be ohar gaitezen, XX. mendeko amaiera honen aldean sano diferentia da eta. Imajina egizue, telefono (ez "mobil" delakoa ez ohikoa), ordenadore, telebisino, kotxe eta abar luzeren faltan bizi izandakoa.

Hori esanda, nik neuk itzel penagarritzat dekotan beste jazoera bat aitatu gura neskixue,

Bizkaieraren aldakiak



hemen ingerun bertoko euskerak eduki deun jenerazio edo belaunaldi-etena. Baserrikerik baserri joateko usarioa dekokunok hainbestetan ikusitako fenomeno azalduko deusuet: baserrietako agure-atsoak edo edade handituuko lagunak (60 urtetik gorakoak, apur bet gora-behera) hemeko euskeraz egiten deure. Haien seme-alabak, 30-50 urte bitartekoak edo, ez dakiez bertoko euskeraren berba solteak baino eta erderaz egiten dagozala "euskarakada" ugari esaten deure baino euskeraz berba egiteko orduan...ai ene! Akabateko, etxeko gazteenak, ilobak eta, euskeraz jakin

izaten deure, kasurik gehienetan batua hutsez eta uste baino gehiagotan ez dira euren zaharreen euskera ulertuteko kapaz. Halan da ze, danok alkarregaz ondo ulertutearren euskeraz egiteko usarioa apurka-apurka galdu egiten da, bide beretik agure-atsoen berbakera be galtzen dan bitartean. Horrek argi eta garbi erakusten deusku orain dala 30-50 urte euskerak geure ingeru osoan edukitako atzerakada, faktore asko zirela medio: hizkuntza honetan berba egiteko debekua, konplexuak eta euskera "baserrikerik-hizkuntzat" hartzea, eta beste hainbeste. Orain,

zorionez, makina bat aita-ama euren seme-alabak euskeraz egiten ikusi daiegu, baina ia beti komunikabide eta euskaltegiatiko euskera batu hutsa izaten da. Ez neuke ezkorra izan gura, baina ez dot uste bertoko euskeraren desagerpena lar asago edo urrun dagoenik, herri handienetan hasi eta txikierrenetaraino zabalduz.

Ea ahaleginen bat egiten dogun hau jazo ez daiten. ■



LUIS LUCIEN BONAPARTE

Napoleon

enperadorearen iloba
zan Luis Lucien

Bonaparte (1813-

1891) bizkuntzalaria.

Euskera aztertzen urte
luzeak emon ebazan.

Lurralderik lurraldeko
euskalkiak bereizteaz

gainera, tokian tokiko

"azpieuskalkiak" be

banandu ebazan

Bonaparte Jaunak.

Uribe Kostako euskera
"Plentziako"

barietatearen barruan
agertuten jaku, bertan

bonako herriak

dagozala: Gorliz,

Plentzia, Barrika,

Sopela, Getxo,

Berango, Urduliz eta

Leioa. Gauza jakina

da herri baten alboko

bainbat herritan be

antzeko berbakera

topa geinkela (Gatika

sortaldetik, Erandion

sarraldetik kasu

baterako...).

liburuak

elkarriketa

TESTUA: VERÓNICA MUÑOZ / ARGAZIAK: MIKEL M.



Itziar Arrieta

Bederatzi urte daramatza Algortako Kultur Etxeko *liburutegian* lanean

—Zelakoa izan da irakurketaren bilakaera azken urte hauetan?

—Beno, nik ikusi dudana gertatzen jendeak gero eta gehiago irakurtzen duela esango nuke. Baina, beste alde batetik, zehaztu behar dut igoera hau, batez ere, umeek eragin dutela, eskolan asko irakurtzen delako, eta gainera haur literaturaren produkzioa gero eta gehiago bultzatzen eta zaintzen ari delako.

—Gauza bera gertatzen al da euskaraz idatzitako liburuen kasuan?

—Ez, hori desberdina da. Adibidez, umeen kasuan bai, euskaraz gero eta gehiago irakur-

tzen dutela esan daiteke, ohitura dutela, alegia. Baina helduen kasua desberdina da; jende nagusiaren artean erderaz irakurtzeko joera garbia dago.

—Liburu berriak erosteko orduan jendearen eskaerak kontuan hartzen dituzue?

—Bai, noski. Horretarako buzoi berezi bat daukagu, horretan jendeak bere eskariak egin ditzan. Baina gehien erabiltzen den sistema gugana etortzea eta zuzenean liburua eskatzea izaten da. Pertsona batzuek liburu bera eskatzen dutenean, egiten dugun lehenengo gauza hemen dugun begiratzea izaten da. Horrela ez bada, eta liburua interesgarria

izanez gero, erosi egiten dugu.

—Oro har, zer liburu mota nahi izaten du jendeak?

—Sormenezko literatura, hau da, nobedadeak, eleberrak eta askotan saio bereziren bat ere bai. Esate baterako, orain modan daude adimen sentikorrari buruzko saioak.

Umeek, ordea, ipuinak, animaliei buruzko liburuak eta, batez ere, komikiak nahiago izaten dituzte. Lehen aipatu dudanez, umeentzat oso produktio polita eta anitza dagoela uste dut.

—Liburutegian bertan irakurtzeko ohitura al dago?

—Ez, jendeak normalean liburuak etxera eramatea eta han irakurtzea nahiago du. Liburutegiko gelak batez ere ikasteko erabiltzen dira. Joera hori hartu dugula esan daiteke, liburutegiak ikasgela moduan erabiltzeko joera, alegia. Azterketa garaian gela handia uni-

bertsitateko ikasleek betetzen dute. Gela txikia, ordea, umeek erabiltzeko daukagu. Arratsaldeetan etortzen dira eta gelan eskolako lanak egiten edo liburu edo komikiren bat irakurtzen igarotzen dute denbora.

—Jendea zintzoa da liburuak itzultzeko orduan?

—Bai. Beno, denerik dago, noski, baina oro har bai. Dena dela, baten batek liburu bat galdu edo eta apurtuz gero, araua beste bat erostea izaten da. Liburu berdina aurkitzea ezinezkoa bada, antzekoren bat erostea gomendatzen dugu.

—Zein da euskaraz irakurri duzun azken liburua?

—Gutxi irakurtzen dudala aitortu behar dut, batez ere denbora faltagatik. Euskaraz irakurri dudana azken liburua *Kutsidazu bidea* Ixabel izan da. ■

Liburuak bere eguna badu ere, egun guztiak dira proposak zeozer irakurtzeko. Hona titulu batzuk, proposamen gisa. Batzuk zaharragoak, beste batzuk berriagoak; hori bai, guztiak interesgarriak.



TENTAZIOAK
Jasone Osoro
Elkarlanean

25 istorio labur biltzen ditu *Tentazioak* liburuak. Gaia mundua bezain antzinakoa: maitasuna, sexua, gizon eta emakumeen artean sortzen diren sentimendu, ezin ulertuak....



IPUIN EROTIKOAK
Askoren artean
Txalaparta

Euskal idazleen ipuin erotikak hau osatzeko narrazio bana eskatu zaie zenbait idazleri. Hamazortzi ahots ezberdin Erosen sekretuak belarrira xuxurlatzen.



GASTEIZKO HONDARTZAK
Xabier Montoia
Susaa

Edozein hiriren historia bere biztanleena ei da, kasu honetan gasteiztarrena. Gerra zibila bukatu eta gaur egun arteko egunak igaroko dituzu.



KOADERNO GORRIA
Arantxa Urretabizkaia
Erein

Arrazoi politikoak tarteko zirela emakume bat bere senar eta eta umeak utzi beharrean aurkitu da. Nola iritsi orain umeekin harremanak izatera?.



ILUSIOAREN ORDAINA
Laura Mintegi
Erein

Orain dela hamabost urte argiratu zen liburua plazaratu du berriro Ereinek. Algortako idazle honen opera prima da ipuin bilduma hau.



GURE BARRIOA 1975
Xabier Mendiguren
Elkarlanean

Hamar bat urte zitueneko garaiak gogoratzen ditu idazleak; herri industrial bateko auzuneko mutikoen mundua.



PALESTINA ZAURITUA
Imanol Murua Uria
Susaa

Idazleak Palestinako eguneko bizitza jaso du. Estilo zuzen batekin eramango zaitu, eta umorez pasaraziko bizipen horietan barrena.



GAUAK ETA HIRIAK
Ur Apalategi Idirin
Elkar

Hiru gazte dira heziketa sentimental honetako protagonistak eta hiruren artean erabazten diren harreman guztiak dira nobelako gaia.

GAZTANAGA
INTERSPORT



Lortu zure puntuak
HEMEN!!

**Kiroletarako
behar duzun guztia!**

Amesti 8 T: 4910605 **ALGORTA**
Sarrikobaso 42 T: 4300397 **ALGORTA**
Sabino Arana 93 T: 4646617 **LEIOA**

**ITXASO
PRENTSA**

Salsidu 1, **ALGORTA**

ORAIN ERE BAI!!

**ITXASGANE
PRENTSA**

Kirol Portua, **ALGORTA**

Pi ru lin Pin pan
tri lu ra...

**GOAZEN DENOK
MENDIRA**

BODEGUILLA

BUTRON

**Hemen
euskaraz!**

Bidebitarte 5

ALGORTA

musika

erreportaia

TESTUA: ZALOA MENDEZ / ARGAZKIAK: MIKEL M.

Urdulizeko poligonoan musika doinuak entzun daitezke aste batzuetatik hona. Berton grabazio estudio berria dago. Zenbait grabazio egin badituzte ere oraindik inauguratu barik dago. Jabea, Carlos Zubiaga, mundu honi loturik bizi izan da; izan ere, *Mocedades* taldeko kidea da. Tio Pete izena jarri diote estudioari eta Bizkaian dagoen grabazio etxe handiena da. Jabearen hitzetan estudioak oso akustika ona dauka diseinua ospe handiko ingeniari batek egin baitu. Estudioaren ezaugarri nabarmenenak moldakortasuna eta arintasuna dira.



Argazkian, Carlos Zubiaga, Tio Pete estudioetako jabea

Bizkaiko grabazio estudiorik handiena

Los Mitos eta Mocedades taldean urte askotan aritu da Carlos Zubiaga abesten eta ahotsen konponketak egiten, oso gustukoa izan duen zeregina. Alabaina, kantak grabatzen zituztenean, beste aldean, hots, alde teknikoan egoteak asko erakartzen zuen Zubiaga. Guzak horrela, grabazio munduan sartuz joan zen. Egun, mundu hori bere bizitza bihurtu dela aitortzen du eta bertatik irteterik ez duela dio.

Hori dela medio Mocedades taldeko kideak Urdulizeko Igel-tzera poligonoan grabazio estudio handi bat eraikitzea erabaki zuen. Lanak joan den irailean hasi zituzten eta hemendik bi asteira inauguratzea espero du jabeak. Tio Pete izena jarri dio

estudioari, txikitik gitarra jotzen irakatsi eta musikaren mundura hurbildu zuen osabaren omenez.

Egunotan estudioari azken ukituak ematen ari zaizkio baina antolaketa ongi antzeman daiteke. Ongi bereizitako lau gela ditu. Nagusiak arreta handia sortzen ari den diseinu akustikoa du eta ospe handia duen Philip Newell ingeniari akustikoa egin da. Newellek 200 estudio inguruko diseinua egin du eta Rolling Stone bezalako taldeekin lan egin izan du. Lau hilabete Urdulizen izan da lanak zuzentzen eta Carlos Zubiagak dioenez, estudio berriak aukera anitz eta paregabeak eskaintzen ditu. Gela nagusi horretan hiru aurpegi ezberdin dituzten eta mugikorrek diren

sei panel daude. Aukeratzen den aurpegiaren arabera, soinu ezberdina ateratzen da: soinu hila, bizia edo hedagarria.

Bestalde, gela nagusi honen inguruan beste hiru txikiago daude. Batean bateria egon liteke, bestean perkusiozko instrumentuak... instrumentu bakoitzaren indarra eta beharren arabera. Gelak akustikoki bereizita daude baina begiz loturik. Hori guztia kontuan harturik Tio Peteren ezaugarri nagusiak moldakortasuna da, oso era ezberdinetako grabazioak egin baitaitezke.

Kanpoko taldeak erakarri
Nahiz eta oraindik inauguratu gabe egon, progak ezezik grabatzea ere egin dira Tio Peten. Esaterako, Basauriko

txistulari talde bat estilo bitxia duten abestiak dituen CD berria grabatzen ari da. Txistuarekin batera, biolontxelo, aire instrumentuak eta abesbatza bat aritzen dira. Grabazio horiek egiteko Zubiagaren estudioa bezain toki handia behar izan dute, batzuetan 50 pertsonak batera egon behar baitute, eta gela ugari izan ezean ezingo litzatekeelako.

Horrez gain, dagoeneko lau talde dituzte lanak noiz bukatu zain grabatzen hasteko. Teknikoki nahasketa mahaia automatizatzea baino ez da falta, baina laster eginaz aurrera egingo du jabeak.

Tio Peten era guztietako musika estiloek izango dute grabatzeko aukera, heavytik musika klasikora bitarteko

guztiek. Carlos Zubiagak azaldu duenez, Euskal Herriko taldeak izango dira, batez ere, Tio Peteren merkatua osatuko dutenak baina Madrileko eta ondoko probintzietako taldeak ere erakartzen saiatuko da. "Guk prezio merkeagoak eskainiko ditugu, bertoko merkatua ez delako Madrilera bezain garrantzitsua eta ez duelako hainbeste saltzen. Beraz, prezioek merkeagoak izan behar dute. Prezio onez gain, ingurune polita ere eskaintzen diegu".

Egunero txanda bi
Aipatu moldakortasunaz aparte, grabazio estudio berrian arintasuna da beste ezaugarrietariko bat, ezinbesteko ezaugarria lana merkea egin nahi

bada. "Talde berri batek maketa lehenbailehen grabatu nahi izango du diskoetxeetan ezagutzera emateko; denbora laburrean grabatzen badute askoz merkeagoa aterako zaie, eta hemen aukera hori ematen diegu" azaldu du Zubiagak.

Tio Peten egiten eta egingo diren grabazio guztiak bi teknikarik kontrolatuko dituzte, Jose Lastrak eta Angel Lazarok. Jabearen hitzetan, Tio Peten, edozein grabazio etxetan bezala, grabaketak ahalik eta onenak izan daitezten lortu nahi da. "Teorikoki gure lana entzun eta grabatzera mugatu behar da, hemendik aurrera aholkua eskatzen badigute guk emango diegu, baina gure lana diskoa grabatzen denean bukatzen da" dio jabeak.

Asmoa egunero grabazio txanda bi izatea da.

Promozio lana batik bat ahoz aho egiten ari da jabea. Musika aldizkarietan iragarriak jartzen ari dira baina bertoko merkatua txikia denez, guztiak elkar ezagutzen dute eta erraza dute musika taldeen artean ezagutzera ematea.

Carlos Zubiagak ilusio handiz begiratzen dio etorkizunari, ez du inolako beldurrik. Bizkaian dagoen tamaina horretako grabazio estudio bakarra da eta, oro har, Euskal Herrian, beste batzuk ere badauden arren, denontzako lana dagoela azaltzen du. ■



ALGORTA



tellefex 15
T: 4607162 - 4604244
48990 algorta



“Zuzen” kalean

TESTUA: J. A.

Eroso dabil Hiru Beltz Su ta Gar edota Latzen taldeen musika mota egiten. Baina ildo horretan Getxoko talde honi bere lehenengo diskoan ahots propioa igartzen zaio. Izenak adierazten duen bezala, *Zuzen*, disko zuzena, kañeroa eta indartsua da. Dagoeneko salgai dago *Discos Suicidas*-ek plazaratu duen lan hau.

Duela lau urte osatu zen taldea Getxon eta aldaketa batzuk izan ondoren, orain, Urko, Sergio, Igor, David, Jon Ander eta Pino ibili dira disko hau prestatzen. Talde gazte, energiaz betea eta azkarra, oso azkarra. Sormenerako gaitasuna badutela erakutsi dute eta zorte apur batekin metal berriaren puntan ibiliko dira. ■

kritika

diskoak

TESTUA: SABIN UGARTE

CARLINHOS BROWN “Omelete Man”

Carlinhos Brown Brasiletik datorren pertsonaia bitxia dugu. Urteetan, beste batzuentzako kantak egiten ibili ondoren, bere diskoak kaleratzeari ekin zion. *Alfagamabetizando* lanarekin debuta egin ostean, *Omelete Man* izenekoarekin datorkigu.

Oraingoan Marisa Monte izeneko emakumeak egin dizkio produkzio lanak. Marisa Monte delako hau, Brasil aldeko egungo pop-aren musa dugu eta Carlinhos-en lan hau produzitu ezezik, ahotsak jar-tzeaz gain, zenbait kantatan abestu ere egiten du; are gehiago, Carlinhos bera, berau moxal

basatia bailitzan, kontrolatzen eta dosifikatzen aritu dela esan daiteke.

Funkirritmoa nabarmenki agertzen duten bi kantek ematen diote hasiera diskoari (*Omelete Man* eta *Vitamina Ser*); ondoren intentsitatea motelduz doa. Gailur erritmikoa, ordea, *Water My Girl*, *Tribal United Dance* eta batez ere, *Cachorro Louco* eta *Faraó* izeneko kanta basati eta ihauteri tankerakoe-tan lortzen du. Bukaera bitarteko beste kantak malenkonika kutsuz jantzirik daude.

Kanta guztiak berak egiteaz gain, Carlinhos era guztietako tresna-jole ere bada, eta bere kantetan metalak (saxoa, tronboia, tronpeta...) eta hariak (bi-

bolina, txeloa, biola...) lagun izan ohi ditu.

Diskoak Carlinhos Brown-ek esparru musikal ezberdinetan murgiltzeko duen gaitasuna frogatzen du, bai brasildar musika tradizionala zein pop giroa eta ausartagoa lantzen duenean; bai kanta lasaia xuxurlatzen dituen zein erotu edo aztoratzen denean. Honen guztia-ren lekuko izan ginen orain bi urte Bilbao Tropikal deituriko ekitaldietara etorri zenean. ■



GLUECIFER

“Soaring With Eagles At Night To Rise With The Pigs In The Morning”

1998a talde eskandinabiaren urtea izan da. Zenbait talde urteetan zehar aritu izan dira, baina zergatia asmatzen zaila bada ere, iragan urtean egin ziren ezagun.

Hellakopters eta Backyard suediarrek dira. Azken hauen *Total 13* diskoa ederto batean ari da saltzen Ingalaterran, Alemanian eta Japonian. Rock erabat indartsua. Turbonegro eta Gluecifer norbegiarrak dira eta gure artean ere izan dira.



Urtea bete baino lehenxeago kalean zuten Stockholm-eko zenbait estudiotan grabatutako bere bigarren disko hau (*Soaring With Eagles...*). *Boss-headed* kantarekin hasi eta *Gimme Solid Gold* kantarekin bukatu arte azeleragailua eten-gabe sakatzen dihardute.

Zera esan dezakegu egiten duten musikari buruz: 70eko hamarkadako hard-rock, hamarkada bereko punka, biak batera... Baina errealago litzateke rockanrol basatia dela esatea. Gordin-gordina.

Amerikar *rock* itxurako abeslari hiltzuna den Biff Malibu, eta bere ekitaldietan AC/DC gogora ekartzen duten eta espektakulua zer den badakiten kitarra-jole on bi (zilar koloreko kamisetak barne) dira talde honen oinarria zuzenean. Nabarmenenak dira *The Year Of Manly Living* eta *Gimme Solid Gold* bezalako kantak, diskoaren gailurra. Edozeri aurre egiteko bezalako hamaika kanta dituzu diskoan. ■

plentziako Placentia de Butron Itsas-museoa

TESTUA: ESTI EZKERRA / ARGAZKIAK: MIKEL M.



Iraganean murgildu

Museo batzuk gure nortasun eta herriaren historian zehar barneratzen gaituzte, adibidez, Plentziako “Placentia de Butron” itsas museoa, orain urtebete ateak ireki zituen.

Plentziaren iragan historikoaren zaletasun handia zuten pertsona talde batek eduki eta burutu zuen museo bat sortzearen ideia. Mendeetan zehar gordetako ondasunen galera ikusita, hura babesteko erakunde bat sortu zuten; helburu nagusia: museo bat eraiki. Euren artean Jose Mari Hormaza zegoen, gaur egun museoaren zuzendaria dena. Guztira 57 pertsonak osatzen dute erakundea, tartean Josu Ortuondo Bilboko alkate ohia eta Anton de Madariaga, Plentziako alkate eta museoaren lehendakaria.

Erakusgarri dauden lan gehienak partikularrenak dira eta honek hainbat oztipo eragin ditu. Izan ere, Jose Mari Hormazak adierazi digunez, pieza bakoitzak balore historikoaz gain, balore afektibo handia du eta jabeek zaila suertatzen ziztzaie horietatik urruntzea.

Horregatik mailegu-kontratu bat hitzartu zen jabeen eta museoaren artean.

Proiektu erabat partikularra izan denez, museoak ez du eus-kal erakundeetatik inolako dirulaguntzarik jaso baina hasieratik Plentziako Udalaren laguntza izan du, museoari lekua eskainiz. Museoa dagoen eraikina, herrian dagoen enblematikoa da. 1525ean eraikia, udaletxe funtzioak bete zituen 1922 urtera arte.

Une honetan museoak 200 obra inguru jaso zituen, XVIII. eta XX. mendeko lehen laurden artekoak.


Plentzia itsas-herriak XIX. mendera arte garrantzi handia izan zuen. Butroi ibaiaren inguruan kokatzen ziren hainbat elizateren itsas-sarrera zenez, inguruko merkatal jarduerak gidatzen zituen. Gutxi gora-behera, bere garaian Bilbo izan zenaren isla zen Plentzia. Baina

industri iraultzari esker, hiriak hazteko aukera izan zuen eta Plentziak, bere hedaturagatik, ezin izan zuen haren aurka lehiatu. Garai horien omenez, museoak itsas herriaren antzinako izena jaso du, Placentia de Butron.

Orain erakusketa monote-matikoa antolatzea dute helburu, pinturaren inguruan, XIX. mendeko erdialdetik XX. mendeko lehen herena arteko bela nahiz baporezko untzien erre-tratuekin.

Guggenheim bezalako museoek gizartearen oihartzun handiaz kezkatzen da Hormaza. Publizitate handiagoa egiten zaie, eta horrek batzuetan eragiten du honen moduko museo txikiak ahaztuak izatea. Prentsan agerpen mugatuagoa dute-nez, ez zaie hainbesteko garrantzirik ematen eta horregatik, zuzendariaren ustez, laguntza handiagoa merezi dute hedabi-

deen aldetik. Plentziara hurbiltzen direnek itsas herriaren historian murgiltzeko aukera izango dute eta seguraski, beren iraganari buruz ez zekizkiten hainbat gauza ikasiko dute. Bai horixe. ■



Hedabideen barrera apala izan arren, jendearen erantzuna oso ona izan da. Baina aurrekontu arazoak direla-eta museoa asteburuetan bakarrik irekitzen da. Igande arratsaldeetan itxita egoten da.



Bakailoa xerratan

txangurroaren ajoarrieroan eta porrusaldazko eta kalabazako pil-pilean
1997ko Pil-pil Saria, Euskadiko bakailao-plater kozinaturik onena

ZELAN EGIN

Su txikian frejitu berakatz atalak oliotan harik eta xigortu arte. Olioa epeltzen utzi eta ondoren egizuz bertan bakailao-solomoak 4 minututan. Atera bakailao oliotatik eta bereizi kontuz-kontuz xerrak. Bakailaoaren zati motzekin eta azalarekin atondu pil-pil bat olio epelean.

Porrusalda bat egin. Azken hiru minutuetan erantsi kalabaza, dadotan mozturik; dena batera pasatu, saldarik gabe, irabiagailu eta iragazkitik. Nahasi pil-pilarekin eta irakin puntura ekarri; gatza eman.

Su txikian berakatz-olio pixka batekin frijitu kipulak eta piper berdeak julianan mozturik eta erantsi azkenean urdaia eta piper txorizeroak (aurrez beratuak). Egosi dena ordu betez eta

atera txorizeroak, urdaia eta koilarakada bi kipula melatu; pasatu horiek guztiak iragazkitik. Erantsi txangurroa eta txipiroia, dadotan ebakita, eta salteatu dena bi minutuz.

Zabaldtu eta nahasi ondo txipiroiaren tinta oliotan eta porrusaldaren saldan; gazi-gezan begiratu eta 30 minutuz egosi astiro. Iragazki mehetik pasatu.

NOLA AURKEZTU

Berotu pil-pila porru eta kalabazako pureagaz eta erantsi bakailao-xerrak. Ez dadila egon minutu batetik gora. Berotu txangurrozko ajoarrieroa eta ipini plater sakon baten erdian. Inguruan, beriz, pil-pilean berotutako xerrak ipini eta hari bat marraztu txipiroiaren tinta-saltsarekin. Perrexil xehatu pixka bat gainetik bota. ■

Osagaiak bi lagunentzat

Porrusaldazko eta kalabazako pil-pila egiteko:
2 porru, patata bat, berakatz, 100 gr kalabaza, koilarakada bat oliu-olio

Txangurrozko ajoarrieroa egiteko:
2 kipula gorri, 2 piper berde, 10 gr perril-urdai, 2 piper gorri (txorizeroak), egositako txangurroaren baragia, xehaturik, txipiroi bat (50 gr), perrexila, txipiroi baten tinta, 2 koilarakada berakatz-olio, 2 koilarakada porrusalda-ur, perrexil xehatua

Bakailaoa egiteko:
300 gr bakailao-solomo, beratua eta gezatual 2 dl oliu-olio, 2 atal berakatz



Kata

Artebakarra txakolina

Derio •
Bodegan botilaratua •
Hondarribi zuri eta folle blanc •
98ko uztakoa •
Alkobola: 10.5° •
Edateko: 8-10° C •




Jon Beaskoetxearen bodegetako txakolin honek bistara, kolore lastohoria agertzen du. Garbia da, distiratsua eta karboniko nota arinak igartzen zaizkio. Sudurrak aroma fresko eta garbiak usainduko ditu, sagar ez onduarenak. Intentsitate ertainekoa. Ahoan freskoa da eta sagar berdea berriro agertzen da. Txakolinaren ezaugarria den garraztasun arina ere badu eta bai ikutu karboniko arin bat ere. Erretrogusto luzea; edatera konbidatzen du. ■

Aholkua

Zelan zabaldtu ardo botila bat

• Lohituta balego zapi busti batekin garbitu botila



Oso garrantzitsua:
prozesu osoan ez da botila mugitu behar



"Sala de Armas de Leioa"-ko kide batzuk

esgrima

TESTUA: ZALOA MENDEZ / ARGAZKIAK: MIKEL M.

Esgrima eskura Leioan

Esgrima jende gutxi praktikatzen duen kirola da. Bizkaian, esaterako, 80 lagun inguru aritzen dira dauden esgrima lau klubetan. Sortu den azkena "Sala de Armas de Leioa" izan da. Herri honetan esgrimak duela bi urte eman zituen lehendabiziko urratsak Jose Ignacio Anguisolaren eskutik, hau da, Bizkaian kirol honen aitzindaria izan denaren eskutik.

Egun, adin ezberdinetako 24 lagun daude apuntaturik. Anguisolaren helburuak ikasle gehiago izatea eta ordu gehiago entrenatzea dira. Horrez gain, ekipamendua behar dute, ezpatak, floreteak, aurpegitakoak eta aparatu elektrikoak. Aipatu

arrazoi hauengatik kluba egitea erabaki zuten eta duela aste batzuk "Sala de Armas de Leioa" izeneko klub berria du Sakoneta kiroldegia. Honek zenbait aukera eskainiko dizkie Leioan esgriman aritzen direnei, besteak beste, toki propioa eta egokia izatea eta erakunde publikoetatik diru-laguntzak jasotzea. Diruarekin ekipamendua erosi ahal izango dute eta, era berean, estatuan egiten diren lehiaketetara joateko bidaia ere ordainduko zaizkie.

Esgrimak hiru modalitate ezberdin ditu: florete, espada eta sablea. Leioako tiratzailek lehenengo biak lantzen dituzte. Floretearekin hasi eta esperimentzia hartu ahala, espada era-

biltzen hasten dira. Teknika, taktika eta sasoi onean egotea, ezinbesteko baldintzak dira esgriman. XVII. mendeko esgrima irakasle batek ezpatari batek izan behar dituen bertuteak lau direla zioen: lehoi bihotza, arrano begia, azeriaren zuhurtasuna eta katuaren bizkortasuna. Adituek diotenaren arabera, esgriman faktore askok jokatzeko dute. Alde batetik fisikoa legoke, tiratzaileak arina eta urduria izan behar du. Bestalde, esgrima kirol oso taktikoa da, hots, itxaroten eta erantzuten jakin behar da, baita arerioa engainatzen ere. Azkenik, faktore tekniko dago. Esgrima ikasi mugimenduak behin eta berriz errepikatzearen

ondorioz ikasten da, mugimendu horiek modu naturalean ateratzea da helburua.

Leioako klubeko irakaslearen hitzetan, ikasteko zailtasunak dituen kirola da esgrima. Praktikatzeko hasten denetik berarekin disfrutatu arte denbora nahikoa behar da, batzuetan urtebete, baina hori bai, Anguisolak dioenez, esgrima ongi ikasten duen pertsona eta kirol honekin disfrutatzen duena erabat engantxatu egiten da.

Bukatzeke, esan dezagun esgrima eliteko kiroltzat hartu izan dela betidanik, baina hori ez da egia. Gaur egun, edonork praktika dezake kirol mota hau; oinarriko ekipoa 11.000 pezetagatik lor daiteke. ■

a s t e r o s a r e a n

www.argia.com

"TABERNATXV" JATETXEA

- MENUAK ASTEAN ZEHAH
- ASTEBURUETAN GAUEZ, MENU BEREZIAK

Zientotxe 39, GETXO. T: 491 16 61

DOVER IDIOMAS

- IKASTARO TRINKOAK
- UDA ETA NEGUA
- GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
- UMEAK, GAZTEAK ETA HELDUAK

Juan Bautista Zabala 12, 2. ALGORTA

460 00 38
460 63 41

Ingelesa
Frantsesa
Alemaniera

FK HIREA KIROLAK

Juan Bautista Zabala 12 T: 460.62.43, 48990 ALGORTA

SAN IGNACIO Autoeskola

Baimenak:
LCC - A1 - A2 - B1 - B2 - C1

Telletxe 7 T: 460 27 99 ALGORTA Urkiola 4 T: 430 06 05 ALGORTA Laubide 3 T: 676 48 39 SOPELA

Iñaki Bitxitegia

Ω

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 4302345

Algorta

horoskopoa

URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Baliteke zeure gorputza zaintzen hasteko unerik aproposena hau izatea. Kanpotik itxura ezin hobea daukazu ematen du baina barrua ez dago hain itxuruso. Gaixotasunak edonoiz ager daitezke.

OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Zure bizitzak argi baten beharra dauka. Ilunpean zabilta azken hilabete hauetan eta, jakina, estropozuka zoaz aurrera. Aukeratu ezazu erreferentzia argi bat: pertsonaren bat, ideologiaren bat...

ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Egizu errepasoa orain arte bizi izan duzunari. Balantzea erabat positiboarela esan daiteke. Ez al da horrela? Horrela bada, segi orain arte bezala. Eta horrela ez bada, ba aldatu eta kitto. Gauza errazagorik...

AITZURRA

(Azaroak 16 abenduak 20)
Zergatik ez zara antzerki munduan sartzen? Mundu guztia daukazu engainatuta. Baina kontuz! Nork bere gezurrak sinestea baina gauza tristeagorik ez dago.

HOSTOA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Jakintsutza daukazu zeure burua eta kontet zara horregatik baina ez zara gai jakinduria hori besteen aurrean frogatzeko. Komunikazio gaitasun urrikoa zara eta hori ez da egun batetik bestera konpontzen.

EGUZKIA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Ez dut uste hain zaila denik zure ingurukoekin ondo moldatzea. Jar zaitzez besteen tokian, saia zaitzez besteen arrazoiak ulertzen eta noizean behin zeure ostixarrak kolkoan gorde. Ikusiko duzu zein erreza den.

GARIA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Telebistaren eragina izugarria izan daiteke. Ahul ikusten zaitugu, indarge ta erabat fribolo. Amata telebista hori (hobe leihotik behera bota) eta atera zeure baitan daukazu guztia. Harritu egingo zaitu berrikuntza honek.

LASTOA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Bizitza honek gorabehera handiak ditu, ezta? Orain hilabete batzuk zein gaizki pasatu zenuen, ezta? Orain, ordea, erabat pletoriko zaude. Lana, diru, lagunak, dena ondo. Tentuz ibili, bizitzak gora-behera handiak ditu eta.

IRATZEA

(Urriak 17 azaroak 15)
Ez zaitzez hain materialista izan, joño! Gauzak ez direla materialetan neurtzen, alajaina! Noiz asetuko zara? Lagunik geratzen ez zaizunean? Ez zaitzez memelo izan eta disimulatu ezazu gutxienez.

META

(Abuztuak 18 irailak 16)
Hiritan gauza gehiago dira sartzen direnak, irteten direnak baino. Horregatik dira hiriak gero eta handiagoak. Zu ere horrelakoa zara. Dena zuretzat. Egunen batean lehertu egin behar duzu. Orduan etorriko dira komeriak.

HAZIA

(Irailak 17 urriak 16)
Gero eta gertuago dago hainbeste estimatzen duzun oreka pertsonal hori. Esparru guztiak kontrolpean dituzu eta emaitzak ezin hobeak dira. Kontuz ibili, ordea, ikasketekin. Frakaso txikiak, izugarriko eragina izan dezake eta.

NEGUA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Lasai egon. Zure inguruan gertatzen ari diren istilu eta ikamika guztiei probetxua atera zenietazieke. Inguratzen zaituen guztia ondo aztertu eta topa ezazu zeure burua onik ateratzeko bideren bat.

gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										

EZKER-ESKUI
1. Atsegin. Aditz bat 2. Ipin. Ihardun 3. Gertaera 4. Gaixok. Italiako sumendia 5. Gironako autotan. Bokalak. Aurreko urtean 6. Iodo. Soinua hauteman. Kontsonantea 7. Ordaindu beharrekoa. Garretza 8. Iparraldean ordua. Ekarraren aditz erroa 9. Ezein tokitan (alderantziz). Tribu
GOITIK-BEHERRA
1. Abokatu 2. Basapiztia. Guztiak 3. Asiako estatua (ald.). Nire (ald.) 4. Batzbestekoa. Nikela 5. Baldarra 6. Iparretarrak. Baratzia. Kontsonantea 7. Ekialdea. Bokalak. Lizun 8. Karibeko irla 9. Pisu gutxiakoa. Nortasun agiria 10. Neu. Bizkor

TIKA ANDREA BULTZATU, LASTER DATOR ETA...

ORAIN, ZARTAKATXO BAT ETA IKUSIKO DUZU ZEIN POTXOLO DATO-RREN...

PUF, PUF!

BA-DATOR!

ENE!

BUA! BUA!

KONTXO!

HAU UMEAREN MOTZA! ENE JAINKOA... HAU ATSEKABEA!

HARA, ZAPLATEKOA!

BUKATU DA

aldizkari bat egiten jarraitu nahi dugu, lehen Getxoko eus- kaldunontzat egiten genuen, orain Uribe Kosta osoko euskaldunontzat. Lagunduko gaituzu?

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

Harpidetza

Harpidetza egin nahi nuke (12 euro = 2.000 pta./urte)

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria: Posta Kodea

Telefona:

e-mail:

Kontu zenbakia (20 zenbaki)

Sinadura

UK Uribe Kostako Aldizkaria - Amezti 6, 4. sol. 5. bul. - 48990 GETXO
Tel - Fax: 94 491 13 37 / aldizkaria@euskalnet.net

ANDY BENGEOA FUTBOL AMERIKAR JOKALARIA

"Euskadi Guggenheim baino gebiago da"

Andy Bengoak denetarik egin izan du bizitza honetan. 70eko hamarkadan Estatu Batuetatik etorri zen Euskal Herrira beka bati esker, eta Sopelan kokatu zuen bere bizilekua. Futbol amerikarra geure artean ereiten saiatu zen Bilbao Steel Knights-ekin eta gaur egun, Baionako bigarren mailako talde batean dihardu jokalaria eta entrenatzaile lanetan.

Zaila al da aldi berean entrenatzea eta jokatzeko?

Bai, jokatzeko ari zarenez nekatuta sentitzen da bat. Ez duzu kontzentrazio bera eta, gainera, gainontzeko jokalariei arreta jarri behar diezu.

Zu estatubatuarra zara, ezta?

Estatubatuarra nintzen. Soldaduzka egiterakoan arazoak izan nituen bertako armadarekin eta beka batekin Euskadira etorri nintzen ikastera. Asko gustatu zitzaizkidan, soldaduzka bukatu eta berriro hona bueltatu nintzen ingelesa irakastera. Armadarekin izandako istiluak zirela-eta, espainiar nazionalitatea hartu nuen eta gaur egun erabat euskalduna sentitzen naiz.

Euskal abizena baduzu.

Bai, nire ama Gallartakoa zen eta nire aita Aretxabetakoa.

EEBBetan ere kirolean aritzen zinen?

Bai, Idahoko taldean jokatzeko nuen, toki hartan euskaldun ugari daude. Institututik zaletasuna geneukan. Denboraldi onak egin nituen eta Idahoko unibertsitate bateko talde on baten beka jaso nuen. Horrekin hona etorri nintzen. Garai hartan hasi zen Bilboko errugby taldea. Beraiekin jokatzeko batu nintzen eta urte batzuk eman nituen bertan.

Aldaketa handia somatu zenuen hango eta hemengo kirolaren artean?

Bai. Hemen errugbyan hasi nintzen eta geroago boxeatu nuen. La Casillan eta Lekeition boxeatu izan dut. Aldagela nahiko pobreak zirela nabaritu nuen. Dirua zeukaten taldeetara ohituta nengo; aldagela beroak, masaiariak, gimnasio prestatuak. Baina ohituz joan nintzen eta hemengo bizitza sozialak egoera horiek konpentsatzen zituen.

Kontaktua mantentzen duzu EEBBekin?

Bai, han lagunak ditut eta hango futbolarekin kontaktua mantentzen saiatzen naiz, planteamenduak oso ezberdinak direlako. Gazte jendearekin hasten dira eta erraza da haiek entrenatzea eta gauzak irakastea.

Bernardo Atxaga zukan oinarritu omen zen liburu batean.

Ez dakit zein neurritaraino den hori egia. Nik ez dut bera pertsonalki ezagutzen. Lagunek bai ezagutzen dute eta aurkeztu nahi zidaten tartean proiektu batzuk zeudelako. Baina azkenean ez zen ezer gertatu.


Agerian dago Euskal Herria gustukoa duzula.

Bai, jendearen izpiritua gustatzen zait, herriarenganako duten maitasuna. Ni neu hemengoa sentitzen naiz. Estatubatuarrek hau ez dute ezagutzen. Beraientzat beren herrialdeaz gain ez dago besterik.

Hemengo enbaxadore ona izango zinateke.

Soldata bat ordainduta, seguru! Dena den, hango lagunei hemengo informazioa pasatzen diet. Baina oso eroso bizi direnez, ez dute ona etortzeko asmo gehiegirik erakusten. Diruak ez die guztirako ematen. Guggenheimi esker existitzen garena jakingo dute behintzat. Museoa bai, ezagutzen dute, baina hori turistak erakartzeko tranpa bat besterik ez da, hemen dirua gasta dezaten. Baina Euskadi Guggenheim baino gehiago da. Ez du benetan lurralde hau dena erakusten. ■

TESTUA: ESTI EZKERRA / ARGAZKIA: MIKEL M.



atzera begira



ESTI EZKERRA

GORLIZKO UMEEN BATAILOIA, 1931

Argazki hau 1913an hartua izan zen. Gorliz betidanik itsasoari estuki loturik egon den herria izan da baina hala ere, argazki hau ez dugu horren adibide. Izan ere, guda garaia zela eta, itsas herriak umeen guda bataloia osatzearen beharra izan zuen, gizonak kanpoan zeuden bitartean. Adinez oso gazteak ziren arren, ausardia ez zuten faltan mutil hauek. Zaharrenak hamahiru urte inguru izango zituen eta iadanik beren herria defendatzeko prest zeuden.



MYNGIA OKINDEGIA

Algortan badankagu Goizero lortzen dogu
artisanen ogia obispoen guleria
izen eta jatorriz probatu bada edo ez dan
da "ogi mungia". benetako ogia.

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA

ez ahaztu!
bete zure
harpi-
detza

Euskal Herrian
okela ona dugu

Informazio gehiago telefono honetan
901 50 55 55*

* Telefono zenbaki hau 1999ko maiatzaren 3tik ekainaren 15era erabil daiteke.

Kalitateko Euskal Labela duen abelgorri okela osasuntsu, zaporetsu eta naturala.

EUSKO LABEL



EUROPAKO ELKARTEAREN
PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUA

Labeldun okelen salmentan duten espezializazio maila handia dela eta, ikur honekin (OK) adierazitako Harategi Baimenduek ARTISAU ERAKO HARATEGI ESPEZIALIZATUEN sailkapena dute Kalitateko Eusko Labela duten produktuetan



ERANDIO

CARNICERÍA LUIS ANGEL
BILBAO
Tartanga, 5

CARNICERÍA JON
Plaza San Agustín, 2

CARNICERÍA JOSEBA
Mercado de Mezo Pto., 10
(Astrabudua)

CARNICERÍA JAVI
Mercado de Mezo Pto., 16
(Astrabudua)

GETXO

CARNICERÍA ESTEBAN
Ganeta, 3

CARNICERÍA SANTI
Iturgite, 18 (Algorta)

CARNICERÍA HNOS.
URRUTIA
Erribarte, 11 (Las Arenas)

CARNICERÍA MARDARAS
Plaza Mercado (Algorta)

OKA CARNES Y
EMBUTIDOS SELECTO
Mercedes, 25 (Las Arenas)

CARNICERÍA JOSE LUIS
Bizkerre S/N (Fadura)

UNIDUO SELECCIÓN
Mayor, 2 (Las Arenas)

CARNICERÍA JUAN LUIS
MADARIAGA
Plaza Mercado (Algorta)

CARNICERÍA GABIRIA
HARATEGIA
Andikoelxe, 22 B (Algorta)

CARNICERÍA CHARCUTERÍA LOIUKO
Aldapas, 4 (Algorta)

CARNICERÍA GALEA
Telletxe, 18 (Algorta)

CARNICERÍA CHARCUTERÍA SEBAS
Santa Eugenia, 23 (Romo)

CARNICERÍA BENGIOA
Bidezabal, 15 (Algorta)

CARNICERÍA OSCAR Y ANA
Lope de Vega, 9 (Romo)

LEIOA

EROSKI LEIOA
Carretera La Avanzada S/N

GORLIZ

CARNICERÍA HNOS.
MADARIAGA
Itxasbide, 12


PLENTZIA

CARNICERÍA MADARIAGA
Elez Enparantza, 7


CARNICERÍA-CHARCUTERÍA
INIGO
Arraun, 1

SOPELANA
CARNICERÍA LANDEA
Sabino Arana, 12

URDULIZ
CARNICERÍA MARIBI
Lapudi, 1



Bilbon



Bizkaian



BBK



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GELIAGO ESKAINTZEN DUENIK